



Ana Alduntzin Navarro, Larraungo Udaleko idazkaria
secretaria del Ayuntamiento de Larraun

NERONEK ZIURTATUA:

Nire ardurapeko Idazkaritzako datuak ikusi ondoren, honakoa ziurtatzen dut:

Larraungo Udalak 2024ko ekainaren 25ean ospatutako Batzarrean, honako akordioa onartu zeula:

1. Astizko Kobak SL – Cuevas de Astitz SL enpresa (B31728033) Larraungo Udalaren erakunde instrumental izendatzea, Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eta adieraztea erakunde instrumental izendatzen dugula, nahiz eta Astizko Kobak SL enpresan parte hartzen duten gainerako entitate eta toki entitateek horietako bakoitzaren erakunde instrumental gisa ere izendatu beharko duten. Erabakia legeak ezartzen duen gehiengo osoz hartu da.

Erakunde instrumentalari emanen zaizkion aginduen eremua bere estatutuetan deskribatutako merkataritza-sozietatearen helburuan jasotzen diren prestazioak izanen dira.

2. Astizko Kobak SL enpresak giza baliabideak, baliabide materialak eta baliabide teknikoak eman beharko ditu, bai eta etorkizunean egingen zaion kudeaketa aginduaren bidez esleituko zaizkion

CERTIFICO:

Que consultados los datos obrantes en esta Secretaría a mi cargo, resulta que:

El Ayuntamiento de Larraun en sesión plenaria celebrada el día 25 de junio de 2024, adoptó el siguiente acuerdo:

1º Declarar a la empresa Astizko Kobak, S.L. – Cuevas de Astitz, S.L. (B31728033) como ente instrumental del Ayuntamiento de Larraun, a los efectos de lo dispuesto en el artículo 8 de la Ley Foral 2/2018, de Contratos Públicos, y declarar que procedemos a su declaración como ente instrumental, si bien el resto de entidades y entidades locales que participan en Astizko Kobak, S.L. también deberán declararla como ente instrumental de cada una de ellas. El acuerdo se adopta por la mayoría absoluta que establece la ley. El ámbito de las órdenes que se otorguen al ente instrumental serán las prestaciones incluidas en el objeto social de la sociedad mercantil descrito en sus estatutos.

2. Astizko Kobak, S.L. deberá proporcionar los recursos humanos, materiales y técnicos, así como la logística necesaria para llevar a cabo las actividades y servicios que se le asignen por orden de gestión futura, con arreglo a criterio

Ana Alduntzin Navarro (1. guztira 2)
Idazkaria
Sinatzen data: 22/07/2024
HASH: 4bbd34cc770acd9f03dad70a991639f

Mikel Huarte Mantija (2. guztira 2)
Idazkaria
Sinatzen data: 23/07/2024
HASH: 5065e7acd6003acde1ef7e7086920e1b





jarduera eta zerbitzuak betetzeko beharrezko logistika ere, ekonomia, eraginkortasun eta kalitate irizpideen arabera. Ildo horretatik, Astizko Kobak S.L. k, ondorio guztietarako, enpresaburu izaera izanen du bere ardurapeko langileei dagokienez, eta horien gainean zuzendaritza, kontrol eta diziplina ahalmenak izanen ditu. Era berean, lan arloan, gizarte segurantzaren eta laneko segurtasun eta higiearen indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, bere erantzukizunpean.

3. Alkate jaunari ahalmena ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiri guztiak sinatu eta formalizatzeko.

4. Iragarkia argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

5. Erakunde instrumentalaren adierazpen espresua argitaratzea Kontratazio Atarian."

Eta horrela jasota gera dadin, eta dagozkion ondorioak sor ditzan, ziurtagiria luzatu dut.

económicos, de eficiencia y calidad. En este sentido, Astizko Kobak, S.L. tendrá, a todos los efectos, la condición de empresario respecto de las trabajadoras y trabajadores a su cargo, con facultades de dirección, control y disciplina sobre las y los mismos. Asimismo, bajo su responsabilidad, cumplirá las disposiciones vigentes en materia laboral, de seguridad social y de seguridad e higiene en el trabajo.

3.º Facultar al Sr. Alcalde para la firma y formalización de cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

4. Publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Navarra.

5. La publicación de una declaración expresa del ente instrumental en el Portal de Contratación. "

Y para que así conste donde proceda y surta los efectos oportunos, expido el certificado.

Mugiron, Larraunen, 2024ko uztailaren 12an.
En Mugiro, Larraun, a 12 de julio de 2024

ALKATEAREN ONIRITZIA

Vº Bº ALCALDE

IDAZKARIA
LA SECRETARIA

